

[EDUROAM: @deusto edo @opendeusto erabiltzaileentzako konexioa](#)

Eduroam elkarte akademikoarentzat eta ikertzaileentzat garatutako mugikortasun seguruko mundu mailako zerbitzua da.


Zerbitzu horrek @deusto edo @opendeusto kontuak dituzten Deustuko Unibertsitateko ikasle, ikertzaile eta langileek Interneterako konexio segurua izatea ahalbideratzen du.

Eduroam-era lehenengoz konektatzeko beharrezkoa da sarea gure ordenagailuan konfiguratzea. Honatx jarraitu beharreko pausuak:


1. UD-Visitor sarera konektatu.



2. Nabigatzailea ireki, cat.eduroam.org idatzi eta, bertan, "Haz clic aquí para descargar tu instalador de eduroam"-ren gainean klik egin:



3. Erakundeen zerrendatik Deustuko Unibertsitatea aukeratuko dugu:



4. Orain erabiltzaile mota ("estudiante" edo "PAS/PDI") eta darabilgun sistema eragilea aukeratu behar dugu.




5. Deskargatutako fitxategia exekutatu behar da eta instalazioarekin jarraitu.



6. Instalazioa hasiko dugu.






Gure @deusto edo @opendeusto kontuko erabiltzaile gakoak sartu:

PAS/PDI


- Erabiltzailea: intraneteko erabiltzailea@deusto.es (jack.sparrow@deusto.es)
- Pasahitza: intraneteko pasahitza

Ikasleak

- Erabiltzailea: login OpenDeusto @opendeusto.es (jack.sparrow@opendeusto.es)
- Pasahitza: OpenDeusto kontuaren pasahitza



7. Ziurtagiria instalatu nahi dugun galdetzen digunean Sí-n klik egin.



8. Finalizar-en klik egin.

9. Konexio zerrendara jo. **UD-Visitor** saretik deskonektatu eta **Eduroam**-en bitartez konexioa hasi. Posible da lehen aldian pasahitza eskatzea, baina, hemendik aurrerakoetan automatikoki konektatuko da.

